



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2017/12/20

Iraunkortasuneko Sailak, Urdaibai Bird Center-erako 60.000 euroko partidea gehitu deutso bere aurrekontu proiektuari

Lurralde Historikoko 2018ko Aurrekontu Orokorrak eztabaidatzeko hirugarren jardunaldian, Batzarretako taldeek Iraunkortasun eta Baliabide Naturaleko Sailaren kontuen aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskeak bozkatu ditue Bizkaiko Batzar Nagusiek. Erregistrautako 86 aldaketa proposamenetatik bakarra onetsi da, *Urdaibai Bird Center-i* 60.000 euro gehiagoko partidea emoten deusana.

Goizean egin dan saioan gertatu dan moduan, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek baterako zuzenketa-eske bat aurkeztu dabe, oraingo honetan, Aranzadi Zientzia Alkartek kudeetan dauen Urdaibaiko biosferako erreserbako hegaztien behatokia diruz laguntzeko. Ekimenak proposamena aurkeztu daben taldeen eta Talde Mistoaren aldeko botoak baino ez ditu jaso, eta EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Talde Popularra abstenidu egin dira.

Euren botoaren errazoia azaltzeko orduan, EH Bildu eta Podemos Bizkaia ados agertu dira Urdaibai Bird Center-erako zuzkidura ekonomiko gehigarriagaz, baina ez dira ados agertu proponidutako diru-kopuruagaz. Hori dala eta, abstenidu egin dira.

Hori dala eta, Elena Unzuetak zuzentzen dauen Sailak 89 milioitik gorako aurrekontua aurkeztuko dau. Kopuru hori sail guztiek aurkeztutako kopuru osoaren %4,8koa da. Atzo eztabaidatu zan Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Sailaren aurrekontuagaz batera, igazkoagaz alderatuta aurrekontu partida txikiagoa daukan sail bakarra da. Kasu honetan, murrizketea %6,1ekoa izan da.

Eztabaidea amaitzean, oposizinoko taldeek, datorren eguenean, abenduaren 28an, Gernikan egingo dan Osoko Bilkurarako erreserbau ditue euren zuzenketa-eske partzial guztiak.

NOTA DE PRENSA

20/12/17

El área de Sostenibilidad añade a su proyecto de presupuesto una partida adicional de 60.000 euros para Urdaibai Bird Center

En la tercera jornada de debate de los Presupuestos Generales del Territorio de Bizkaia para 2018, las Juntas Generales han votado las enmiendas presentadas por los diversos grupos junteros a las cuentas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural. De las 86 propuestas de modificación registradas, únicamente ha sido aprobado una, que concede una



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

partida adicional de 60.000 euros a *Urdaibai Bird Center*.

Al igual que ha sucedido en la sesión celebrada por la mañana, los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han presentado una enmienda conjunta, en este caso para subvencionar el observatorio de aves de la reserva de la biosfera de Urdaibai, gestionado por la Sociedad de Ciencias Aranzadi. La iniciativa únicamente ha contado con el apoyo de los grupos proponentes y del Grupo Mixto, mientras que EH Bildu, Podemos Bizkaia y Grupo Popular se han abstenido.

En la argumentación sobre el sentido de su voto, tanto EH Bildu como Podemos Bizkaia se han mostrado favorables a una dotación económica adicional para *Urdaibai Bird Center*, pero no han estado de acuerdo con el montante propuesto, lo cual ha justificado su abstención.

Como resultado de todo ello, el departamento de Elena Unzueta presentará un presupuesto para 2018 que superará los 89 millones de euros. Esta cantidad representa el 4,8% del total registrado por todos los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia. Junto con el presupuesto del Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión Territorial debatido ayer, se trata de las únicas áreas que han reducido su partida respecto al año pasado. En este caso la disminución es del 6,1%.

Una vez ha finalizado el debate, los grupos junteros de la oposición han reservado todas sus enmiendas parciales para debatirlas el próximo jueves 28 en el Pleno que se celebrará en Gernika.